



NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA

IRRI ETA NEGARREN

ARTEA



SARIA:

BIDAZI elkarteko
bertako produktu
ekologikoz
osaturako
saskia

2017ko AZARO-ABENDUA

155. ALEA

IZENAK IZAN

ADIERAZPENAREN ERREGINA: ANTZERKIA



Esther Carrizo eta Ramon Albistur aspalditxotik Beran bizi den bikotea dugu. Uhartean izeneko adierazpen eta clown-antzerki eskola ibiltaria sortu zuten 2001ean. Bertze hainbat eta hainbat kontutan ibiltzen diren arren, erran dezakegu antzerkia beraien bizitzaren ardatza dela.

Gure eskualdean azkenaldian antzerkiak eman dituen fruituak ikusirik, bikoteari horri buruz galdetu diogu, baina galderak kendu dizkiogu elkarrizketari. Zure lana horiek kokatzea izanen da. Zorte on!

- a) Zer da antzerkia zuentzat?
- b) Eta orain zer? (Harritik Haziari dagokionez)
- c) Harritik Hazia antzerkian esperientziarik gabeko jendearekin lan egin duzue. Zer nolako esperientzia izan da?
- d) Nola ikusten duzue antzerkiaren egoera gure eskualdean? Ba al dago mugimendurik?
- e) Zenbat urte daramatzazue antzerkiaren munduan murgildurik?
- f) Horretaz gain, bertze antzerki-proiekturik baduzue?

1)

Ramon: Ni txikitan hasi nintzen, 11 urterekin. Gaztetan segitu nuen eta nire lehen esperientzia zuzendari lanetan 16-17 urterekin izan nuen. Gero unibertsitatean eta lanean antzerkia utzi nuen, baina berriz hasi nintzen 1980. urtean. Azkenik, profesionalki 84an hasi nintzen

Esther: Ni 88an hasi nintzen, Ramon ezagutu eta gero. Momentu hori arte nik ez nuen antzerkia ukitu ere, ez nekien zer zen. Eta gero barruraino sartu nintzen; ia-ia 30 urte daramatzat jada.

2)

Esther: Niretzat espazio zabal bat da, mugarik gabeko espazioa, non gauza guziak sartzen ahal diren, arte guziak. Arte horiek pertsonarekin topo egiten dute eta hortik zerbait ateratzen da, batez ere, gorputz eta jolasaren bidez. Gero, magia horri forma eman behar diozu eta publikoari eskaini.

Ramon: Niretzat aunitz maite dudana espresio bidea da. Antzerkian maite dudana irudia da, mugimendua. Hitza ere bai, baina gehienbat hitza gorputzaren zerbitzuan eta gorputza hitzaren zerbitzuan. Nire ustez, hitza edo testua soilik ez da antzerkia. Estherrek erran duena; sortzen den aniztasun hori da maite dudana.

IZENAK IZAN



3)

Esther: 92an Berako kultur etxea sortu zenean, Gure Txokoaren bidez truke gisako bat egin genuen: antzerki tailerra eman, gure ikuskizuna sortzeko behar genuen kultur etxeko espazioaren truke. Orduan jarritako Haziak fruituak eman dituela iduritzen zait eta ematen segitzen duela.

Ramon: 92an honat etortzean, antzerkia bulkatzen hasi ginen: kultur etxean gazte eta helduekin, eta Jesusen Bihotza eskolako haurrekin. Geroztik, bederen, Bortzirietan mugimendua sortzen ikusi dugu. Horri gehitu behar zaizkio Lamixene elkartearen sorrera, Mugaz Gain festibala eta Antzerki eta Eskola egitasmoa, denborarekin Bortziriak osora zabalduz joan zena. Beran, Antzeko Parezido izeneko gazte-taldea sortu zen, eta oraindik segitzen duen emakume-talde bat: Emaizta. Lesakako tailerra Euskara Mankomunitatearen bermean sortu zen, eta hortik Mairu Antzerki Tailerra eratu zen; gaztetxoekin an eginez, sortze lanean, Keinu Leihoak festibala antolatuz... segitzen dute. Beran Kale Antzerkiak egin ditugu herriko elkarrekin, musika eskolarekin... Eta aurten, Harritik Hazia eta Isidoro Fagoagarena Beran izan dira, Carmen pastorala Etxalarren... Badago bailaran eta herri guzietan kultur ekimenen programazioa, Berako Kafe Antzerkia zikloa, Lesakako Festibala... Publikoa egiten da sentsibilizazio lanaren bidez.

4)

Ramon: Izugarria! Jendea maitasun handiarekin sartu da, nahiz eta diziplina exijitzen zen. Azkenean, denon artean lortu dugu ekoizpen hori, taldekideen arteko harreman estuaren bidez. Nik horrela sentitzen dut herri antzerkia.

Esther: Espresio lanaren bidez lan-taldea lortu dugu, eta horri esker egin dugu egin duguna, bertzenaz ezinezkoa izanen litzateke. Guk lan egiten dugun eran, bakoitzak ekarritakoa ontzat hartuta, garatzen dugu egitasmoa. Helburua ez da pertsona aldatzea edo moldatzea, baizik eta pertsonekin lan egitea.

5)

Esther: Orain, alde batetik, emanaldia mugitzen hasi gara. Bertzetik, Emakumeen Oroimen Zelaia egitasmoa dugu. Hori Harritik Hazia emanaldiarekin sortu da eta heldu den urtean eraikiko dugu. Ez dakigu nola, non edo nora joanen garen, abiatzen ari gara.

6)

Esther: Beti hamaika proiektu buruan. Heldu den urterako gogoan dut zerbait diseinatzen hastea. Feminismoari buruzkoa izanen da. Feminismoan familia aunitz daude. Horri buruz solastatu nahi dut.

Ramon: Egin dugunaren harira, oroimen historikoa, nire belaunaldiari buruz gustatuko litzaidake zerbait egitea, baina ez dakit indarra izanen dudana. Halere, aunitz maite dut egin berri duguna, forma hori, belaunaldi ezberdinen arteko nahasketa: haurrak, nerabeak, helduak... Horrela segitzea gustatuko litzaidake.

Esther: Niri ere horrek gogo handia pizten dit. Badakit ez dela beti erraza izaten, baina zoragarria da energia ezberdinak nahasi eta emaitza ikustea. Zergatik ezberdintzen ditugu hainbertze haurrak, nerabeak, helduak eta zaharrak? Azken finean, denok hori dena pasatu behar dugu.

Antzerkia adierazteko espazio handi bat da, beraz, eman diezaiogun espazioa antzerkiari!



KULTUR TXOKOA

KARMEN

ETXALARTARRA MITO UNIBERTSALA

Carmen pertsonaia mito bihurtu da. Mito horri aldaera edo ___1___ anitz bilatu bazaizkio ere, orokorrean erran daiteke Carmen dela bere bizia askatasunez bizitzeko iparrorratza jartzen ___2___. Horrek adorea ematen dio aitzinean paratzen zaionaren kontra borrokatzeko, zutik bizitzeko. Nahiz eta heriotzarekin ordaindu behar izan, *“ni izaten jarraituko dut”*, dio Carmenek. Horregatik, mito bihurtuta, Carmenek gaurkotasuna du. Azaroaren 25eko ospakizun eta aldarrikapenen barrenean inoiz baino ozenago mito hau goraiatu beharko ___3___, Carmen ___4___ izan baitzen. Mito hau, *Carmen* eleberria hizpide harturik, historian zehar hainbat arte adierazpenetara ailegatu da. Hori dela eta, sorta bat bildu dugu, baina testuko hitz batzuk kendu ditugu eta behean hiru aukera jarri ditugu. Zure lana zuzena aukeratzea izanen da.



Eleberria

Proper Mériméeren eleberri laburra da. ___5___ argitaratu zen. Ezinezko maitasun eta heriotzaren kontakizuna da eta Carmen askatasunaren, erotismoaren eta patuaren irudi bihurtzen da bertan.

Opera

G. Bizetek 1875ean sortua. Mundu ___6___ zehar emakume “espainolaren” adibide adierazgarrienetakoa bihurtu zen Carmen. Aipatzen ahal da eleberriak baino ospe handiagoa lortu zuela. Opera hau estreinatu zenean ikusleria txunditurik eta asaldaturik gelditu zen. Bizet 33. emanaldian hil zen eta ez zuen nazioartean ondoren izango zuen arrakasta ezagutu. Harrezkero, operarik ospetsuenetariko bat izan da.

Filmak

Carmen zinemako pantailetara anitzetan eraman izan da, zuzendari ezberdinek bideratua: F. Feyder, Jones Preminger, Cecil B. de Mille, Carlos Saura edo Vicente Aranda. Azken zuzendari honek 2003an, Paz Vega (Carmen) eta Leonardo Sbaraglia (Jose) aktoreak protagonista ___7___ zuzendu zuen.

Artearen bertze adierazpenetan

Balletera ere eraman izan da eta azpimarratu behar da egindako koreografiak, bertze batzuen artean, artista hauek dantzatuak izan direla: Alicia Alonso, Antonio Gades, J. Feyder, edo Suetziako Mats Ek.

Sorolla, Picabea, Juan Gris, Zuloaga, Julio Romero de Torres, Madrazo, Picasso, Antonio Saura, Arroyo, Leiro eta Gordillo artistek mito hau margotu dute. Pertsonaiari buruz erakusketak, pastorala, komikiak eta bertze hainbat arte erakustaldi burutu dira, azken finean, mitoek denboraren mugak gainditzen ___8___.

- | | | | |
|---|--|--|---|
| 1. a) erranai
b) erran nahi
c) erranahi | 2. a) duela
b) duen
c) duena | 3. a) genuke
b) genuen
c) zen | 4. a) erahila
b) eraila
c) heraila |
| 5. a) 1845-ean
b) 1845an
c) 1845ean | 6. a) osoaren
b) osoan
c) osoari | 7. a) zituelako
b) zituela
c) zituenez | 8. a) bait dituzte
b) baitute
c) baitituzte |



BITXILOREAK

ETXALARKO PASTORALA

Karmen pastoralak (1)aztertu behar dugu pastoralaren osagaiak ote dituen ikusteko. Testuko hitz batzuk beltzez daude, behean dauden sinonimoekin parekatzeko.

ERNE SARIBAKO!!



Pastoral hau herri antzerkia da, kanpoan, herriko plazan (2)jarrita dagoen antzestoki edo "triate" baten gainean eman dena. Bertsoz abestua da, eta pertsonaia baten bizitzan oinarritzen da (Etxalarko Karmen, eleberriko pertsonaia). Gaizto eta onen arteko (3)borroka baten arabera egituratzen da. (4)Beraz, pastoralaren definizioa ederki betetzen du Karmen pastoralak.

Badakigu pastoralak Erdi Arotik heldu direla; Europako misterioen hondarrak eta Frantziako nekazari antzerkiaren bidez, Zuberoara ailegatu zirela. Pastoral berriek, zaharrekin alderatuz, honako bereizgarri hauek dituzte: egilea dute (Karmen pastoralak Gerardo Mungia Pintxek idatzia da). Testua zainduta agertzen da (pastoralaren liburuxka irakurtzera animatzen zaituztegu); laburragoak dira (hiru ordu eta erdikoak), garai batean egun osoa irauten zuten, eta partaideen artean emakumezkoak eta gizonezkoak nahasita agertzen dira. Gaiari dagokionez, aipatzen ahal da gehienetan euskal historian oinarritzen direla. Batzuetan herriak gai bat (5)aukeratzen du, eta, bertze batzuetan, idazleak herriari gai bat eskaintzen dio (horixe izan da Etxalarko kasua).

Pastoraletan mundu dualista irudikatzen da; alde batetik, pertsonaia onak: Khirixtiak, heroia eta haren ingurukoak dira (Karmen, Jose, Karmenen lagunak, zigarrak, kontrabandistak, artzainak).

(6)Eszenatokia bi ate daude, pertsonaia onak ikusleriaren ezkerreko aldetik ateratzen dira, eta kolore urdina dagokie. Bertze aldean, pertsonaia gaiztoak: turkoak, frantsesak, ingelesak edo espainolak dira (Karmenen kasuan lantzari-soldadu-dragoia dira, turk andere-gizonak, baita satan eta bere lagunak ere). Hauek, eskuineko aldetik ateratzen dira, eta kolore gorria dagokie. Antzestoki horren gainean deabru irudia duen zurezko panpina bat egoten da (Karmenen ere ikusten ahal dena.) Garai batean, antzestokien gainean zegoen etxolan soinu egileak egoten ziren (Karmen pastoraletan, berriz, eskuinaldean agertzen dira).

(7)Egiturari dagokionez, aipatu behar da hauxe izaten dutela: lehendabiziko pheredikia (peredikua) edo hitzaurrea. Hemen lanaren edukia azaltzen da (Karmen pastoraletan bada). Ondoren, jaikhaldiak edo jelkaldiak. Bertan gertakariak kontatzen dira (Karmen pastoraletan 17 daude). Azken pheredikian eskerrak ematen dira, mezua laburtzen da (Karmen pastoraletan azken pheredikua hain ederra denez, aparteko orrian landu behar dugu). (8)Akitzeko, azken kantorea izaten da, eta bertan herriaren goraiatzeko esker-kanta bat egiten da.

Musikak ere izugarriko garrantzia du pastoraletan, eta honetan aipatu behar da (9)soinu egile ederrez osatutako talde zoragarriak parte hartu duela: klarineta, teklata, bonboa, akordeoia, gaita, tronpeta, txistu eta txirula, atabala, perkusioa eta fabota.

Kantuak eta dantzak ezaugarri nagusienetakoak dira edozein pastoraletan. Bertso ederrek osatzen dute Karmen Pastoralak eta liburuxkan biltzen dira hiru hizkuntzatan: euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Dantzek ere aipamen berezia merezi dute: klasikoak, modernoak eta nabarmentzekoa (10)bereziki Karmenek Andaluziako doinuz egindako dantza erotikoa.

a) batez ere, batik bat - b) bukatzeko - c) estruktura - d) musikari - e) arakatu, ikertu
f) paratuta - g) agertokia - h) hautatzen - i) Hortaz - j) gatazka



EGIN KANTU AZKEN PEREDIKÜA



Etxalarko pastoralarekin segituz, ariketatxo honetan antzezlaneko azken perediküa izenekoak ekarri dugu, hau da, azken agurra. Euskarari erreparatzen badiozu, segur aski berezi samar suertatuko zaizkizu bertsoak, izan ere, zuberera kutsu nabarmena dute. Halere, mezu orokorra ulertuko duzulakoan gaude. Hori bai, ongi konprenitu nahi baduzu, lehenbizi, falta diren akaberrak beheitiko koadrotik aukeratu eta agurrean txertatu beharko dituzu.

- | | | |
|-----------------|------------|---------------|
| a) oinarriturik | d) egunero | g) oroitarazi |
| b) tikiena | e) mendea | h) asko |
| c) bor-bor | f) bada | i) guzier |

Gizon batek hil duela,
ikasten da(1)....,
hozki "bere" emaztea.
Hori zital eta ero!

Eleberri bada ere
gaurkotasuna du(2)....
usu entzun baitaiteke
ez bagara orobat gor.

Basakeria honek dirudi
Biblian(3)....,
non eta emazte-sugea
izan behar kaliturik.

Tikiak tikiagoari
ardura izua dio.
Izuak gorroto dakar.
Ta gorrotoak(4)....

Jarraiki duzue zer zen
mandilaren bizitzea.
Ikasi duzue ere
heme(re)tzigarren(5)....

Gau-lanetan ibiliak
hemendik segurki franko
Bizkarrean zenbat zama!
Ai! Trantze lanjeros(6)....

Euskarari atxikiak
Nafarroako haranak.
Guzion erronka baita.
Helduena,(7)....

Aipa nahi nizueke
hemengo jente(8)....:
Euskaraz solas zakizkie
haurrak jaio bezain ber.

Tragedia luze izan da.
Hala bada eta ez(9)....
historiarik nehoiz ez da
nonbait kontaktzen ez(9)....

Adios maitagarriak.
Behar da(10)....
errepideko lanjerra.
Beraz ibili adi adi.

ERANTZUNAK



IZENAK IZAN (2.-3. or.):

1- e; 2- a; 3- d; 4- c; 5- b; 6- f

KULTUR TXOKOA (4. or.):

1- c; 2- c; 3- a; 4- b; 5- c; 6- b; 7- b; 8- c

EGIN KANTU!! (6. or.):

1- d; 2- c; 3- a; 4- j; 5- e; 6- h; 7- b; 8- l; 9- g

154. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

1- b; 2- a; 3- b; 4- c; 5- a; 6- c; 7- c; 8- a; 9- b; 10- b; 11- c; 12- a

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria: **BIDAZI** elkarteko bertako produktu ekologikoz nosatutako saskia

154. aleko irabazlea:

ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - Lesakan; Xagu - Arantzan; Ilargi okindegia;
- Igantzín; Bi Bide denda - Donezteben; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondon; Axular eta Nafarpress - Leitzan; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak abenduaren 15a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. or.):

- | | |
|-----------|------------|
| 1 - _____ | 6 - _____ |
| 2 - _____ | 7 - _____ |
| 3 - _____ | 8 - _____ |
| 4 - _____ | 9 - _____ |
| 5 - _____ | 10 - _____ |



EUSKARA berri on!!

ESKER ONEZ

beteriko SU-PINTTARRAK;
Iturengo Altxunea eta
Urdazubiko Nikolaurenea
erretegiei, Lesakako
Lindurrenborda sagardote-
giari, Beko mintegiari, Bidazi
Elkarteari, Baztango Udalari
eta Bortziriak eta Malerre-
kako Euskara Mankomuni-
tatei...

... eta ESPERANTZA eta
ESKER ON SUTARRI GORIAK
euskaltegion eta euskalgintza-
ren egoera ahula sendotzeko,
bultzatzeko eta babesteko
ahaleginetan dabilen Nafa-
rroako Gobernu berriari...
ea asmo onak gauzaten
ahal diren.

... eta BEROTASUN GOXOA EUSKARA
erabiltzeko, hobetzeko, ikasteko,
babezteko eta EUSKARAZ osasuntsu
bizitzeko ahaleginean ari zareten Etxetik
Plazarazale eta euskaltzale guztiei!!



Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**



ZOKKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....
Helbidea:..... Herria:.....
Telefona:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

